

Kultura

Eta hala ere, ezinezkoa da ezer ez uztea. Batek, bere izena googlen bilatu eta sarrerarik agertzen ez bada ere, edo agertzen ez denean batez ere, eman egiten du, eman eta eman. Hartu ere bai, bestela ezin liteke, baina eman egiten du. Mundua edertzen duena ekin txumean batuketa da: hitz amultsu batzuk, irribarre goxo bat gehiena behar denean, besarkada bero bat, muxu bat. Maitasun keinu bat, adiskidetasun mezu bat, espero ez zenuen telefono dei bat. Ezin dira artxioboetan gorde, ihesi doaz, bizirik daude, galdu egiten dira, eta

hala ere, keinu horietan egin zaituzte, keinu horietan ekarri zaituzte honaino. Ez duzu besterik utziko, ezta beharrik ere.

Etetik urrun, Durangotik aparte, batbatean azoka etorri zaizu gogora. Zenbat idazle, zenbat musikari, zenbat langile. Zenbat lagun, zenbat lan, zenbat borondate. Eta zenbat jende, zenbat euskaltzale, zenbat zenbat kultura baten bizirik iraun gaitzan. Gero eta antz handiago izan arren, zuretzat Durango ez da sekula izango megadenda bat. Eta kultura ez da izango industriaren adar. Liburuak eta kantauk zer dira ba, besterentzat utzitako keinu txikiak ez badira? Zer dira ba, ez badira herriari herriari emandako hitz amultsu batzuk?



Ojira
Xabier Gantzarain

Ez egin negarririk

Xabier Lete zendu zela ikasi genuen Donibane Lohitzuneko lasterketara abiatzeaz ginel. Haize hotza kanpoan eta tristura bihotzean. Alabari kontatzen nion nola entzuten genituen, Pariseko osabak igorri eta Xabier Letek grabatu berri zituen 45 itzuliko diskoak buklean: *Giza aberea*, *Amaren bu-larra*, *San Simon eta San Juda*, guztiak klasiko bilakatuak. Beranduago, mobileta brikolatueta, Donapaleura joaten ginenean Lete, Antton Valverde eta Lurdes Iriandoren zuzenean aditzeko. Ikastolaren alde.



Bira
Itxaro Borda

Aspaldiko istorioak dira. Ukitzen gaituztenak. Gure hitz neurtuen oinarrian daudelako. Lafiteniarako ibilaldian, itsaso barea eskuinaldean eta zeru gris mehetxagarrian bermatzen zen Larrunen buru zuria ezkerrean poeta baten partitza latza dela pentsatzen nuen, urratsean, poeta herrikoa delarik bereziki. Herrikoa, euskaldunon egunerokotasuna gozatzeko kantak idatzi zituelako diot. Xalbadorri egin zion abestia xuxurla dezakegu izena aldatuz.

Xabier Leteren hautsak baretuko dira. Izarrenak balira bezala. Lurralde honekiko anbiguitate maiteminduz goazen bizidunok ez dakigu herioa erraldoitasunaren bukalaria ala memoria zabalaren ataria den. Zorretan gaude.

Zuzendaria:

Martxelo Otamendi

Zuzendariordea:

Enekoitz Telleria

Edizio arduraduna:

Lurdes Huizi

Argitaratzailea:

Euskal Editorea SM

Publikitateak: Iragarri SM

Lege gordailua:

SS-0662/03

Batzorde parekidea:

071284059

Egoitza nagusia:

Martin Ugalde kultur parkea.

Gudarien Etorbidea, z/g.

20140 Andoain.

Telefonoa:

(0034) 943-30 40 30

Faxa: (0034) 943-30 09 43

Webgunea:

www.berria.info

Posta elektronikoa:

berria@berria.info

Publikitateak:

publi@iragarri.net

Harpidetzatzailea:

(0034) 943-30 43 45

Date: 07/12/2010

Exemplaire: 2.316

Editeur: Euskal Editorea s.l.

Directeur de publication:

Martxelo Otamendi

Commission paritaire:

071284059

Delegation Labour:

Lisses 3, 64100-Baiona.

Tel.: (0033) 559256220.

Fax: (0033) 559254303.

E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK

Araba: Bizenta Mogel, 6.

Posta kodea: 01008

Gasteiz. Telefonoa:

945-15 04 52. Erredakzioko

faxa: 945-14 83 07.

Posta elektronikoa:

araba@berria.info.

Bizkaia: Uribitarte kalea, 18,

3. C. Posta kodea: 48001

Bilbo. Telefonoa:

94-435 26 00. Erredakzioko

faxa: 94-423 49 75.

Posta elektronikoa:

bizkaia@berria.info.

Lapurdi: Lisses, 3. Posta

kodea: 64100 Baiona.

Telefonoa: 559-25 62 20.

Faxa: 559-25 43 03.

Posta elektronikoa:

lapurdi@berria.info.

Nafarroa: Iratxeko Monaste-

ria, 45, 13. Posta kodea:

31011 Iruñea. Telefonoa:

948-36 66 22.

Publikitateak: 948-36 66 23.

Posta elektronikoa:

nafarroa@berria.info.

Alderdiak eta biktimak: ez dezagun iparra galdu

Jon Mirena Landa

Giza Eskubideen bulegoko zuzendari ohia

Motibazio politikoa eragindako giza eskubideen bortxaketaren biktimen txostenaren jarraipena behar lukeena aurkeztu zuten abenduaren 1ean, Eusko Legebiltzarrean. Aurkezte hutsa albiste ona da, estatutaren ardurapean izandako bortxaketa larrien onarpena eta baieztapena esan nahi duelako, eta betetzeko dagoen ikasgaia da egian, justizian eta erreparazioan oinarritutako politika publikoak eskatzen dituen. Inoiz ez da berandu, asmoak onak badira. Batez ere PP eta PSE begirada altxatzen hastea eta bortxaketa mota hori badela ukatzeari uztea ona da: haien zuzen, noski, baina batez ere biktimentzat eta gizartearentzat. Ekarpen txiki bat gehitzen da pasa den legeintzaldiko 2008ko ekainean aurkeztutako txostenari txertatzen zaiona. Eta bide bat ikusten da, denen artean egin behar dena, eta inolaz ere etenik izatea onartu behar ez dena.

Baina nola ibili? Zein bide orriekin? Alderdien arteko kontsentsuaz asko hitz egin da egunotan. Eta hori ere ona da. Prozesuak zaindu egin behar dira, biktimen zaurietan gatz gehiago bota dezaketean alderdien arteko desadostasunak saihesteko. Azken finean, haiek baitira plater hautsiak ordaintzen dituztenak.

Baina adostasuna ez da helburua. Helburua erreparatzea da

—ahal den neurrian— egia egin eta argitara atera, eta justizia egin. Hildakoak eta zaurituak, torturatuak... hamarkadetan entzun behar izan dutenak eskubiderik ez zutela, esaten zutena gezurra zela, guk ordaindutako zergekin ordaindutakoen eskutik sufritu dutenak, euren osotasuna bortxatu dietenak, duintasuna, eta Estatu-ko aparatuetatik hil egin dituztenak eta lesioak eragin dituztenak; horiek guztiak gizartearen oso irekia dagoen zauri bat dira eta leuntasunez eta lehentasunez tratatu behar dira.

Alderdi politikoei —batzuek beste batzuek baino gehiago—, Eusko Jaurilaritzak, Giza Eskubideen zuzendaritzak eta Biktimen arretarako bulegoak biktima horiek erdigunean jarri behar dituzte, eta erraza izango ez den komunikazioa hasi behar dute. Helburuak jardun publikoaren eta hartzaileen arteko gutxienean sintonia lortzea behar luke izan. Eta hor topatzen da aurkeztu berri den txostenean hobetu behar den lehen frontea. Txosten berriak ez du kaltetuen zerrendarik jasotzen: aurreko txostenean, 2008koan atariko lan bat eginda, 109 hildako eta 538 zauritu identifikatu genituen. Artatuak izan daitezkeen zain dauden kasu konkretuak dira. Bai, txosten berriak ez badaude ere, kotoiaren lehen proba haiengana jozte da, eta epe bat irekitzea biktima diren datuen ekarpena egin ahal izateko aukera izan dezaten. Aurreko txostenean lehen urratsa baino ez genuen egin, baina ez zen ez denborarik ez alderdi batzuen aldetik elkarlanik egin gizartearen kanpaina ireki eta publiko bat egi-

teko biktima dena eta zerrendetan ez dagoena txertatzeko. Egungo txostena serioa bada, Gobernuaren atea ireki behar dira pertsona horiek euren hitza esan dezaten, adierazi daitezkeen eta errodan gehitzea eskatu ahal izan dezaten. Ezin da txostenik egin, ez aurrerako urratsik, ez politika serioirik, biktima horiek aintzat hartu gabe.

Ildo horretan, «bidegabeak diren sufrimenduen» erreferentzian «giza eskubideen urraketaren biktima» izan direnak gehitzea ongi etorria izan behar da, inor ez dadin alboratuta geratu. 80ko hamarkada amaieratik aurrera gertatu diren giza eskubideen urraketek garrantzia kentzeko tentatziotik alde egin behar da. Tortura, edo gehiegikeria polizialek edo gertatu diren beste elementu parapolizial batzuek beste taminak giza eskubideen urraketak dira, eta motibazio politikorengatik eraginda, berdin-berdin. Ondorioz, bazterketarik gabe artatu behar dira eta berdintasunean.

Txostenak, beraz, fronte kritikori hori du: Non geratzen da jendea?

Ezin da txostenik egin, ez aurrerako urratsik, ez politika serioirik, biktima horiek aintzat hartu gabe

Eta ondo uler dadila. Ez da kritika destruktiboa. Ekarpenean bat da, umiltasunez, nikustera iristen naizen arte, motibazio politikoa eragindako giza eskubideen biktimak, orain arte ukatuak, diskriminatutakoak eta publikoki irainduak eta laidotuak ere izan direnak, ulertu ahal dezaten politika publikoak esanguratsua izan daitezkeela haien zuzen: itzaletik atera daitezkeen, elkarriketa baten hasiera gisa ahal dezaten. Eta horrek esan nahi du, eta gogorra baina beharrezkoa izango da, haien egia entzutea. Eta zehaztu dezatela zer nahi duten erreparatzeko, hortik aurrera eskaera zilegia zein den atera dezagun. Ez du balio «despotismo ilustratuak»: herriarentzat baina herririk gabe. Biktimentzat baina haiek aintzat hartu gabe?

Txostena autismo gubernamenduan geratzen bada edo alderdi politikoen oreken menpe (eta ez dezagun ahaztu Alderdien Legea dela-eta ez dutela euskal gizarte osoa ordezkatzeko) litekeena da txostenaren etorkizunak heriotzera eramango duten zauriak izatea, eta horrek zauriak sendatu baino gehiago infektatzera eramango du.

Beraz, poztu gaitzen emandako pausoagatik, baina orain ireki ditzagun ateak. Epe luzera begira, bazterketarik gabe, hierarkiarik gabe, alderdi politikoen kalkulurik gabe, lege oztupoak aitzakia gisa baliatu gabe, justizia letra larritz egiteko, nazioarteko zuzenbidea erreferentzia hartuta eta iparra galdu gabe. Politikak biktimentzat behar dute izan, eta beraien bitartez, gizartearentzat. Eta ez alderantziz.